

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA–GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK

Alkate eta udalbatzako lehendakariaren dekretua. Amaia Barredo Martínen arduraldi eskusiboa

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoaren ildotik, hau erabaki zuen udalbatzak, gehiengoz, 2019ko ekainaren 28an egindako bilkuran:

“2019ko ekainaren 15etik aurrera, egun hori barne, arduraldia berekin eramango duten kargu korporatiboak zehaztea:

I. Arduraldi eskusiboarekin jardungo dute beren karguetan alkateak eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek, udal taldeen eledunek eta ordezkariak berezia duten zinegotziek.

Alkatearen ordainsaria 84.271,30 eurokoa izango da, eta horren arabera kalkulatu dira alkateordeenak (73.104,48 euro), zinegotzi ordezkariarenak eta taldeek udalbatzan dituzten eledunenak (68.751,32 euro).

II. Ordezkaritza berezia duten zinegotzien ordainsariak —EUDEL-en irizpideen ildotik— alkatearen ordainsariaren ehuneko 75ean finkatzen dira.

III. Halaber, Eledunen Batzarrean adostutako irizpideei jarraiki, arduraldi eskusiboan bete ahal izango dituzte beren karguak —aurreko puntuan ezarritako baldintzetan— aldi berean honako ardura hauetako hiru edo gehiago dituzten udalbatzako kideek:

— Udalbatzaren batzorde iraunkorretakoren bateko edo Iradokizun edo Erreklamazio Batzorde Bereziko lehendakaria edo lehendakariordea.

— Kontratazio Mahaiko titularra edo ordezkoa.

— Udal erakunde autonomo bateko zuzendaritza kontseiluko kidea.

— Bere udal taldearen eleduna, udalbatzaren batzorderen batean.

IV. Egoera horretan ez daudelako arduraldi eskusiborik ez duten udalbatzako kideek, ardura bat baino gehiago badute —udalbatzaren batzorderen bateko lehendakaria edo lehendakariordea, edo bere udal taldearen eleduna, udalbatzaren batzorderen batean—, baina hiru gairitu gabe, arduraldi partziala izan ahalko dute, eta aurreko atalean adierazitako ordainsariaren ehuneko 75era arte jaso.

Aurreko puntuetan adierazitako ordainsari-erregimenak berekin dakar Udalbatzaren Araudi Organikoaren 81.4 artikuluan aurreikusitako ordainsari-osagarriari uko egitea, 82. artikuluan adierazten den moduan.

V. Ez arduraldi eskusiborik, ez arduraldi partzialik ez duten korporazioko kideek dietak jasoko dituzte kide diren organo kolegiatuen bilkuretara joateagatik —Udalbatzaren Araudi Organikoan adierazten diren zenbatekoak—.”

2019ko uztailaren 11n, Amaia Barredo Martín Gasteizko Udaleko zinegotzi karguaz jabetu zen, Itziar Gonzalo de Zuazoren ordezkari, eta Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatu zuten.

Hortaz, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 75.5 artikulua haritik —alkateari aitortzen baitio beren zereginak arduraldi eskusiboan nahiz partzalean egingo dituzten kideak zehazteko eskumena—, eta udalbatzaren 2019ko ekainaren 28ko erabakiarekin bat etorriz, hau

Ebatzi dut

Lehen: Amaia Barredo Martínen arduraldi eskusiboa

Tokiko Gobernu Batzarreko kidea den aldetik, Amaia Barredo Martín zinegotzia arduraldi eskusiboan aritu dadila erabakitzea.

Bigarrena. Ondorioak

2019ko uztailaren 11tik izango ditu ondorioak dekretu honek, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-taulan arauz dagokion moduan argitaratuko bada ere.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 18an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE